

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure aplikazioa aurrera ateratzeko, gure abilezia eta zaletasunak erreparatuko ditugu batez ere, proiektuak funtziona dezan beharrezkoa baita bezeroak edukitzea. Horregatik, bakoitzak hobekien kontrolatzen dituen arloko gauzak egiten baditu, proiektua hobera joango da. Jarraian, partaide bakoitzak gauzatuko dituen funtsezko jarduerak aurkeztuko ditugu.

Taldean hiru izan arren, laguntza gehiago ere beharko dugu; izan ere, gure abileziak ez dira nahikoak proiektu honek bere baitan duen potentzialtasuna atera ahal izateko. Horrek ez du esan nahi pertsona bakoitza bere arloan bakarrik zentratuko denik, talde bat baikara, eta talde bat, elkarrekin lan egiten duten eta helburu amankomun bat lortzeko elkartzen den gizaki multzo bat baita; horregatik, norbaitek arazo edo zalantza bat izango balu, gure proiektuaren laguntasunean babestu ahal izango da, denok batera oztopo horiei aurre egiteko.



Lehen aipatu dugun bezala bakoitzak betebeharrak bat izango du, bere trebetasunen arabera.

Hasteko, webgune eta aplikazio bat sortzea erabaki dugu. **Ane** izango da atal hau eramateaz arduratuko dena. Bere abilezia handiena da, eta horregatik iruditu zaigu izan litekeela gure webgunea eta aplikazioa sortzen dituen. Agian kanpoko erakunderen edo enpresaren baten laguntza beharko luke uneren batean, baina hala eta guztiz ere, bi gune birtual horien sorreraren zama handiena Anerena izango da.

Anek sortutako webgunea eramango duena **Miren** izango da. Gainera, gure aplikazioa erabiltzen dutenek eta gure webgunean gure proiektuari buruz gehiago jakiteko sartzeko direnek egindako galdera guztiei erantzungo die, oso ondo baitagokio pertsonekin komunikatzea eta gauzak argi eta garbi azaltzea. Hau da, bera izango da erabiltzaileekin harremanetan egoteaz arduratuko dena, beti ere harreman automatizatua erabiliz.

Azkenik, **Nora** arduratuko da sare sozialak eramateaz. Instagrameko, twitterreko eta facebookeko gure kontu ofizialak eramateaz gain, aplikazio berria ezagunagoa egingo luketen influencer desberdinekin harremanetan jarriko da instagram kontutik. Modu berean, INDITEX eta kirol enprekin egin beharreko akordioen inguruan eduki beharreko harremanak ere Norak gauzatuko ditu, baita

Telebista kateekin eta Maddon publizitate enpresarekin ere. Kostu finantzarioen jarraipena egiteko arduraduna ere izango da, jakintza ere baduelako alor honetan.



Azken finean, denok bat eginez eta norberak bere lanaren zatia egoki burutzen badu, proiektuak aurrera ateratzeko erraztasuna izango du une oro, beraz funtsezko jarduerak egoki betez gero, aurrerapauso handiak egingo dira orokorrean gure aplikazioaren antolaketan, horrela arrakasta edukiz.

